

PEDRO DE MADARIAGA KALIGRAFOA GRAMATIKALARI ERE BAI:

MODI LOQUENDI LATINO ET HISPANO SERMONE IDATZI ZUEN 1581-1582N.

Lino Akesolo

Pedro de Madariaga bizkaitarra, Arratiako semea, Joanes Iziar durangarra-
rekin batean, oso ezaguna da kaligrafotzat, 1565n *Honra de Escribanos* liburua
argitara eman zuen ezkerero. Caro Baroja jaunak ere, Garibay Esteban-en istori-
-lana aztertzerakoan, zenbait lerro eskaiñi dizkio, euskaldunek Ganboa-Oñaztaren
arteko burrukak utzi eta luma-lanari ekin zioten aldiko gizon eredutzat berau
aurkeztuz.

Gaur arte, inork ez digu kaligrafo onen lanaz besterik ezaguerazi. Eta gure
artean kaligrafoaren ezaupidea oraintsu samarrekoa izan dela esango nuke. Or
zebillen, bai, Madariagaren izena kaligrafo ospetsuenen berri eman duten
liburuetan sarturik edo galdurik. Bear bada, euskaldunontzat galduago kanpota-
rrentzat baiño.

Egia da, Euskalerrriaren Adiskideen Errege Elkarte sortu berritan, Elkarte
onetan sartua zen Francisco Xavier de Santiago Palomares arkeologo eta
kaligrafoaren arduraz eta, dirudianez, Elkartearen beraren laguntzaz, Madaria-
garen 1565ko liburua bigarren argitaraldia izan zuela 1777n, titulu aldakun-
tztatxo arturik: *Arte de escribir*. Baiña liburu onek Euskalerrriaren goragarritzko
orrialde asko eta euskal-ortografiaren berri emateko leenengoko saioa zekaz-
kien arren, badirudi ez zuela gure artean arreta andirik bereganatu gure mende
onetara arte. RIEV-en, 1908n egin zion Carmelo Etxegaraik gure arteko leen-
-aipamena. Eta aldizkari berean, RIEV-en alegia, Julio Urkijo izan genuen,
1922n, Tomas Navarro izkuntzalariak jakitun ipiñirik, xeetasun geixeago eman
ziguna, antziñako kaligrafoak euskal-ortografiaz bere liburuan zeukan kapitulu-
txoa ere ezagueraziz.

Arrezkerokoa da Madariagaren izenak eta lanak gure ikerlari eta izkuntza-
lari batzuen lanetan egin izan zaion aipamena. Bi arestixean aipatu ditut: Caro
Baroja eta Navarro Tomas. Beste izkuntzlari bi aipa ditzazkegu: Amado Alon-
so eta L. Mitxelena.

Madariagari ospea eman dion liburua or da bere bi edizio eta bi titulare-
kin: *Libro subtilísimo intitulado Honra de Escribanos. Compuesto y experimen-*

tado por Pedro de Madariaga Vizcaíno (1565koa), eta *Arte de escribir*, ortografía de la pluma y honor de los profesores de este magisterio (1777koa). Eta gaur arte, ez dugu egillearen berririk izan, berak liburuan eman ez beste. Orain arte idatzi duten guztiek dena andik ateraia dute, besterik ezer gabe.

Gure mende onetan Emilio Cotarelo Nori jaunak jaso zuen bere *Diccionario de Calígrafos Españoles* iker-lanean leenagokoek (Pedro Díaz de Morante, Vicente Ximeno, Nicolás Antonio eta Santiago Palomares-ek) esan zuten guztia. Guztia ere oso gutxi da: Pedro de Madariaga Bizkaitarra zela, Arratiako semea, Joanes Iziar durangarraren eskolako izana eta gaztetan Italian, Frantzia eta Espainian zear bibillia, eta azkenez, 1562.n Valenciako Unibertsitatean kaligrafia irakasteko maisu-aulkia eman ziotela. Andik aitzina berririk ez dakite. Ez noz jaio ez noiz il zenik ez digu inork argitu.

Gure mende onetan Amado Alonsok zerbait aurrerago jo nai izan zuen, Arratian Oako seme izan zela esatera ausartuz, au ere Madariagak berak idatzitako itzetarik aterata. Izan ere, gure kaligrafoak bere bizkaitartasuna ize-nean berean salatu badu, bera jaio zen etxea eta auzoa ere eman dizkigula argi bai argi dago onako itz auetan: “Y solas estas dos vocales OA, así juntas, significan un principalísimo pueblo de Vizcaya, al pie de Axmutil, donde esta situado aquel antiquísimo solar de Madariaga, en cuyas almenas tocan los primeros rayos del sol de toda aquella provincia cada mañana; y a quien mira toda Arratia y Vizcaya hasta la barra de Portogalete.” Arto bero usaitxoan darien itz auetan Madariagak bere auzoa eta bere jaiotetxea salatzen zituela argi ikusi zuen Amado Alonsok. Baiña OA ori ez zuen inongo mapatan aurkitzen. Baiña guk badakigu non den. Axmutil orren oiñetan, Madariaga etxetik urbil, auzo berean, Serantes mendia begipean genduela aurtzaroa egin degunok, erraz eta bereala ikusten dugu non diren *solar antiquísimo* ori eta *principalísimo pueblo* ori. Arratian Dima errian daude. Dimako auzoa edo kofradia da OA ori (orain mapetan Oba dena), eta Madariaga ango etxe baten izena, orain laburturik *Madaria* esaten dutena. Barka dezaiogun Madariagari bere arrotasuntxo. Artobero usaia dariola esan dut. Bere jaiotetxea eta auzoa goratzearen baiño areago, an urruneko erdaldunei adarra jotzearen edo egin du, noski baiño noskiago. Edo ta, esaera zaarra on egitearren. “Urrunago, gezurrak andiago”. Barka dezaiogun, nola nai ere, berea abertzaletasunagatik.

Erritik urrun bizitzea autatu bazuen ere, Madariagak Euskalania oso barman zeraman. Liburu guztian ala ageri zaio. Liburuaren leen-zatia elkar-izketazkoa du: erdaldun eta euskaldun mordo biren arteko elkar-izketazkoa. Eta euskaldunak erdaldunen gainetik nausi ateraten ditu beti. Luma kontuan, batez ere. Eta erdaldunek nausitasun ori gogoz on artzen eta aitortzen dute. Luma kontuan ez ezik, beste gauza batzutan ere gaina artzen dio euskaldunak erdaldunari; ala, lege gauzetan, Bizkaiko legeak nor bakoitzarentzat eskatzen duen itzal eta begirune onean, gorputzeko neke-oiñazetik bizkaitarrei ez Bizkaian ez beste Bizkaiko Jaunarenpeko inongo menderritan ez ematea agintzean, eta ola. Gero, Ganboa-Oñazterkeriak zearo utzi eta lumazko ekintzetan guztiak bat egiñik

sartzea opa die euskaldunei. Gogoan du Euskalerriko Ikastetxe nagusia ere: Oñatikoa (Oñati, ez Oñate), eta aren aipamena Paris, Bolonia, Salamanca eta Valenciakoekin batera egiten du.

Emen esanak or daude 1565ko liburuan Madariagak esanda; eta neronek ere nere saiotoxa egin nuen Madariaga onen lanak eta bizitzako xeetasun batzuen oroimena berritzeko 1965n, Euskal erriko Adiskideen *Boletin-nean*.

Gaur zerbait geiago esateko gaiean gera. Madariaga ez da kaligrafo bakarririk izan; gramatikaikalarari ere bai. Gaur esan dezakegu are 1582n Valencian jarraitzen zuela irakasten, eta beste liburu bat argiratu zuela, gramatikazkoa, latinez idatzia geiena: *Modi loquendi Latino et Hispano sermone, a Petro Madariaga Cantabro, in Academia Valentina publico professore depromoti. Ex Oratoribus, Historicis, Poetis, Grammaticis, Graeca, Latina atque Hispana consuetudine. Impresso en Valencia, en casa de la Viuda de Pedro de Huete, a la plaza de la Yerba (liburuaren azkenen en la plaza de la Yerba dio). 1582.*

Guk dakigula, liburu au ez du inork aipatu ere egin. Madrilgo Biblioteca Nacional-ean liburu oso bakanen artean (R) daukate ale bat. Liburu bakanon artean 8275garren zenbakia darama. Guztiz 64 orri edo 128 orrialde egiten ditu. Bi itzaurredu da, bata latinez, eta bestea gatzeleraz.

Garai artan oi zutenez, atariaren ondoren, on-iritzien emailleak datoz. Bata Valenciako Ikastetxe Nagusi artan irakaslea da eta bestea, Erretor jauna berbera.

Leenengoak onela dio: “Yo el Maestro Pedro Juan Nuñez, he visto el presente tratado de gramatica, intitulado, Modi loquendi Latino et Hispano sermone, de Pedro de Madariaga: y me ha parecido muy bien y muy util para los que se exercitan tanto en componer, como en hablar Latin”.

Bigarren on-iritzia Joachim Mijavila-rena da eta beronek ipintzen gaitu jakitun nor den beste on-iritzi emaillea ere: “Yo el Doctor Joachim Mijavila e visto y reconocido este tratado de Pedro de Madariaga, uno de los clásicos desta Universidad, y e visto la aprobación del Maestro Nuñez Cathedratico de Rhetorica, y Griego, y consiliario nuestro assignado por el Illustre Senado desta ciudad de Valencia en lo que pertenece a la enseñanza de las lenguas, y me parece muy util, provechoso, y necessario para los que han de exercitar la lengua Latina en su pureza y propiedad, y assi le decreto por bueno y aprobado para que se lea en esta Universidad. Dado en Valencia a 12 de Noviembre. Año 1581”.

Biblioteca Nacional-eko aleak, tituluaren ondoren, eskuz idatzitako itzok ditu azalean: “Corrigese pala 2a impression”. Eta liburuaren barruan ainbat zuzenketa aurkitzen dira, eskuz eginik, bein zerbait ezabatuz eta bein zerbait berri erantsiz. Latinezko itzaurrean, esaterako, len ez zeukan titulua ezarri zaio: “De difficultatibus linguae latinae ad lectores”. Eta Mijavila Erretoraren gorasarrez idatzitako itzak kendurik daude. Nonbait ere, bi aldiz Erretor izan

ornen zen ori, bigarren edizioa egiterakoan, illa zen edo kargua utzita zeukan, eta gorasarrea ez egoki iruditu zitzaion idazleari. Atera ote zen bigarren edizio au? Nola nai ere, asmoak berak zerbait esan nai du Madariagaren liburuari egin zitzaion arrera onaren alde.

Orra, bada, non dugun liburu onetan lengo kaligrafi-irakaslea gramatika irakasle egiñik. Latina sakonki ezagutzen zuela agiri du liburu onetan. Eta berriz aurkitzen gara emen Madariagaren bizitzako illun-une bat argitu nai eta argitu eziñik: ea non eta nolako ikasketak egiña zen bera. Berak ortografiatzko liburuan Joanes Iziar durangarraren eskolara ibillia zela besterik ez digu aitortu. Zaragozan izan zen, noski. Zer ikasi naiak eraman zuen Frantzia, Italia eta Españako ikastegietara?

Norbaitek esan zuen Italian soldadu ibillia ez ote zen; baiña Madariagaren an gaindiko ibillerak ez dute soldadu dabillenaren antzik, bai ikasteko asmoz eta gogoz egiñak. Kaligralia ikasteko asmo utsez ez zen ibilli, beste gai asko ere bai. Jakin-miña izan zen beti; beti izan zuen zerbait berri ikasteko arra edo garra, bere garaitsuko Diaz Morantek esan zuenez: “Fue grande estudiante, hombre de ciencia, práctico e ingenioso”. Italian zear iende jakintsuekin arremanak izatea billatzen zuen, ez bakarrik kristauekin, bai juduekin ere, eta izkuntza askotxoren jabe egin zela ikusten dugu. Bere euskeraz gaiñera, latin, greka, eta eberkera ere ikasia dela ematen du, eta inguruko erderak, Gaztelakoa, Italiakoa eta Valenciakoa, esan bearrik ez.

Lazioko izkuntzan maisu zela *Modi loquendi* liburu onetan erakutsi du, eta maisutasen ori Valenciakoko Unibertsitateak ago betean aitortu dio, ikusi dugunez.

Zerk bultzaturik atera du liburu au? Ortografi-liburua ateratzera eraman zuen bultzagarriak berak: eskoletako irakaskuntzan ikusi dituen oker batzuk zuzendu naiak, ikasleei latin ikastea errazteko gogoak. Itzaurrean eman du latin ikasleek aurkitzen dituzten zailtasunen zerrendatxoa. Zailtasunik andienetakoa erderaren eta latinaren aditzak elkarrekin nola egokitu ez jakitea ornen dute, noiz modo bat eta noiz aldi bat edo beste bat erabilli bear den izkuntza bataren eta besetearen arabera ez ongi jakitea. Orrek sortzen ornen dizkie ikasleei zailtasun eta oker-ulertze asko. Orrela ikast-urtetan ordu asko galtzen ornen dira alperrik, aurrerarik egin gabe. Nebrijaren gramatikak ez ornen du puntu askotan argirik ematen bear añean. Eta orra Madariagak ikasle eta irakasleentzat eman nai izan duen laguntza. Eta orra Valenciakoko Unibertsitateak ontzat eman eta bearrezkotzat artu duena.

Liburua iru zatitan dago. Leenbizikoan, latinezko aditz jokaera guztiak ematen ditu: *Sum* aditza eta beste lau aditz-jokaerak (*amo, doceo, legi, audio*) beren modo eta aldi guztiekin, erderazko ordaiña aldamenean dutela; eta gero, bai araugabeko eta norki gabeko aditz guztiak ere: *fero, velo, nolo, malo, eo, possum, praesum, prosum, obsum, subsum, supersum; licet, pudet, taedet, pertaedet, sofet, libet* eta abar. Zati au, liburuko luzeena, 40garren orrira artekoa, latinez idatzi du.

Bigarren zatia gaztelerazkoa da: *Maneras de hablar en Romance como se reduzen en Latin*, compuestas por Pedro de Madariaga Vizcaino. Berrogei eta batgarren orritik 50garreneraño doa. Latiñezko aldi bakoitza zein alditan noiz erabilli bear den argibideak ematen ditu.

Irugarren zatia, 50garren orritik 64garrenerañoakoa, latin utsezkoa da. Liburu osoaren titulua derama nolabait: *Modi loquendi Latino sermone explicati a Petro Madariaga*. Zati onek atarian tituluaren pean jarritakoari bete betean erantzuten dio: *Ex oratoribus, historicis, Poetis, Grammaticis* ateratako testoz beterik dago.

Latinezko esaldien giltza aditzak ematen baitu, latin-aditzen jokaera eta jokaldi guztiak urrengoz urrengo aztertzen ditu, Lazioko idazleak noiz nolako adizkiak erabilli dituzten, eta nola ulertu bear diren, guztia latiñez idatzi duten idazle andienen esaldiak adibidetzat ekarrita. Antziñako eta geroagoko idazleen puskak pillatu ditu eta aldi guztietako gramatikalarien esanekin argitu eta azaldu: Or dira Cicero, Terenzio, Tito Livio, Valerio Maximo, Plinio, Columella, Plauto, Salustio, Hirzio, eta or antziñako eta berriagoko latinista eta gramatikalarien artetik ekarrita, Aulo Gelio, Prinziano, Donato, Diomedes, Tomas Linacer, Lorenzo Valla, Ludovico Vives eta Nebrija, azkenengo au iñoiz beronen oker usteen bat ezeztatzeko ekarria.

Egilleak badaki eta ala aitortzen du berak ere utsen bat edo oker ulertuen bat izango duela, eta zailtasun guztiak ere ez dituela argitu, noski, eta berak ikutu ez dituen sintasi gai batzuk argitzeko ikasleak bertako maisuengana bialtzen ditu. Euron arteko bat, Pedro Figeroa bere adiskide miña ornen du.

Liburu onek Madariagaren bizitza argi berritan jartzen digula ukatzerik ez dago. Berau idatzi ondoren, bigarren edizioa egiteko izan zuen asmoak urte batzuk geiago luzatzen du irakasle onen bizia, eta leengo lekuan irakasten jarraitzen zuela esaten digu, naikoa argi, Mijavilaren bigarren erretoretza amaitu eta geroagora arte, beintzat. Uste danez, 1565n ogeta zortzi urte baizituen, 1537 inguruan jaioa da. Noiz il zen? Valencian eliz-agiri asko erre edo galdu izan baitira, ortaz argirik egiten ez da erraz izango. Valencian ezkonduzat eman du norbaitek, eta an bertako seme eta idazle ugaria izandako Juan de Madariaga Kartujako praillearen aitatzat. Baiña au ez dago batere argi. Praille orrek Madariagaren aurretik beste patronimiko bat (Ybañez) ornen zeukan, kartujarrak esan digutenez. Bear bada, Pedro ez zen Arratiatik bera bakarrik aldatu Valenciara. Arrebarekin batera edo. Kartujar idazle ori gure Pedoren illoba izan daiteke.

Gaurkoz aski bekigu emen ezaguerazi dugun liburuak eman digun argia: Pedro Madariaga Bizkaitarra, Dima-Obako semea, kaligrafo izanaz gaiñera, latin irakasle eta gramatikalari oso onartua izan zela Valencian.